

ROL-JOLASA ERIZAINZAREN IRAKASKUNTZAN

Zupiria X, Artola O, Etxabe N.

Donostiako erizaintza-eskola

Sarrera

Erizaintzako ikasketen barruan, eta hautazko ikasgai baten barruan ("Gaixotzearen prozesu psikologikoak eta zainketa"), ikasleei honako praktika proposatzen zaie: binaka, izandako esperientzian oinarriturik, asko hunkitu dituen eszena bat aurkeztea (ikasle bat gaixoaren lekuan eta bestea ikasle/erizainaren lekuan).

Helburuak

Praktiketan izandako esperientzian oinarriturik hunkitzen dituzten egoerak lantzea.

Metodoak

Eszena bideoan grabatzen da. Eszena logela batean egiten da, ikasle bat gaixoaren lekuan eta bestea erizainaren lekuan. Klaseko beste ikasleak ikusleak dira. Eszena egin eta berehala eszenak sugeritutakoaz hitz egiten da talde osoan, eta nahi izanez gero, beste partaideek eszenaren beste antzeppen bat egin dezakete. Ondoren, atsedenaldirik baten ondoren, eszena berriz ikusi eta eszenaz eta sortutako emozio eta erantzunez eztabaidatzen da.

Emaitzak

Iaz 5 eszena landu genituen:

1. Minbiziak jotako gaixo terminala, tratamendurik onartzen ez zuena.
2. Minbiziak jotako gaixo terminala, eskelarako argazkia aukeratzen ari zena.
3. Erizain ikaslearekin ligatu nahi zuen nerabea.
4. Istripuz gorputz gehiena erreta zuen gaztea, denekin oso haserre zegoena.
5. Gaixo zerraldoaren aurrean, hilik zegoela ukatzen zuen emaztea.

Komunikazio honetan bigarren eszena aurkeztuko dugu eta planteatu zuten ikasleek bere esperientzia azalduko digute.

Ondorioak

Rol-jolasa tresna erabilgarria agertu zaigu, kezkatzen dituzten eszenak lantzeko.